Horren ondorioz, Babesleei bidezkoak diren jakinarazpenak egitearen kalterik gabe, ondasun higigarri eta higiezin nahiz eskubide mota guztiak, erosi, gorde, eduki, eskura izan, edozein bidez besterendu edota kargatu edo ezarri ahal izango ditu; egintza edo kontratu mota guztiak gauzatu; maileguak hartu nahiz itzuli; agintaritzara edo epaitegietara jo eta bertaratu Epaitegi, Auzitegi eta Herri Erakundeen nahiz Erakunde Pribatuen aurrean ekintza eta salbuespen mota guztietan jardunez, beti ere, zuzenbidezko ordenamenduan ezarritakoaren mende.

#### 3. artikulua.- Sortze-helburuak.


IKERBASQUE Fundazioak/Fundación IKERBASQUEk, gizartearen, unibertsitateen eta ikerkuntza-zentroyen nahiz zientzialarien erkidegoaren onetan ikerkuntza eta zientziaren ezagutza, giza ezagutza eta teknologia-ezagutza bultzatu, sustatu eta garatzea ditu helburutzat, Euskal Herrian sustraitutako ikertzaileen eta zientzialarien multzoa apurka-apurka sendotzen lagunduz. Zentzu horretan, IKERBASQUE Fundazioak/Fundación IKERBASQUEk, unibertsitateetan eta ikerkuntza-zentro edo institutu publiko edo pribatuetan ikerkuntza-lerroak sustatzen esku hartu ahal izango du, estatuko nahiz atzerriko erakunde eta organismoekin-elkarlanean jardunez.

Helburu zabal horien barruan, honako hauek izango ditu berehalako jarduerarik zehatzenak eta garrantzitsuenak:

- a) Zientziaren eta teknikaren ezagutza ekoitzi, sustatu eta zabaltzearen alde lan egitea.



P 8125190 C



- b) Euskal Herrian lan egiten duten ikerkuntza-taldeak sendotzea beren etekinak handitzeko.
- c) Ikerkuntza sustatzeko, Euskal Herrian giza baliabideen politika eraginkorra garatzea.
- d) Estatuko eta nazioarteko unibertsitate eta ikerkuntza-zentro handiekin zientziarako eta irakaskuntzarako elkarlan-bideak ezartzea.
- e) Herri-administrazioekin eta alor pribatuarekin, beren jardueri dagozkien gaietan legez egokiak diren moduan elkarlan-bideak ezartzea.
- f) Berariazko ikerkuntza-zentroak edota elkarlan-bidezkoak sortzea eta kudeatzea.
- g) Estatuko nahiz nazioarteko zientziarako topaketak antolatzea.
- h) Sortze-helburuak lortzen lagunduko duten jardunak finantzatzeko bere baliabideak lortzea: subentzioak, bekak, laguntzak eta dohaintzan jasoak, bai herri-erakundeek emanak eta baita pertsona fisiko nahiz juridiko pribatuek emanak ere.
- i) Helburu nagusia eta sortze-helburuak lortzen lagunduko duen beste edozein helburu.

Aurreko artikuluko horien edukiak ez du izaera mugaturik eta edozein helburu ere baliozkotzat jo behar da helburu nagusia eta jardueren garapena lortzeari dagokionean.

#### 4. artikulua.- Helburuen garapena.

Fundazioak bere sortze-helburuak, berari egokien iruditzen zaion eran gara ditzake, baita beste erakunde edo antolakuntza batzuetan esku hartuz ere, beti ere, Estatutu hauetatik eta Legeetatik ondorioztatutako mugak baino ez dituela.

#### 5. artikulua.- Helbidea.

Fundazioaren helbidea hau izango da: Donostia kalea, 1; 01010 Gasteiz (Araba). Patronatuak libreki erabaki dezake erakundearen egoitza aldatzea, baina aldatetaren berri Fundazioen Erregistroari eman beharko dio. Era berean, ahalmena ematen zaio Patronatuari, sortze-helburuak betetzeak sortzen dizkion beharren eta kasuen arabera, finkatu behar izango dituen egoitza, establezimendu, ordezkaritza edo bulegoak zehaztu eta finkatzeko.

#### 6. artikulua - Lurralde-esparrua.

Fundazioak nagusiki Euskal Herrian burutuko ditu bere eginkizunak, baina beti ere, bere helburuen izaerak esparru zabalagoetan jardutea eskatzen dionean lurralde horretatik at ere bere jarduerak garatzearen kalterik gabe noski. Bere gobernu- eta kudeaketa-organoen egoitza eta bere jardueraren berariazko gizarte-egitarauen zuzendaritza, Euskal Herrian egongo da.

#### 7. artikulua.- Onuradunak.

Patronatuaren ustez zientzia-erkidegoaren zati eraginkor diren pertsona fisiko edo juridikoak, Fundazio honetako onuradun izan daitezke:



ELUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

JUSTIZIA, LAN ETA  
GIZARTE SEGURANTZA SAILA  
Euskal Herriko Fundazioen Erregistroa  
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,  
EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL  
Registro de Fundaciones del País Vasco

Onuradunen izendapen zehatza egiteko, Patronatuak, honako arlo hauei begiratu beharko die: pertsona juridikoen kasuan, berek garatzen duten jarduerarengatik, duten kalifikazioarengatik, ikerkuntzako bikaintasun-mailarengatik nahiz ikerkuntzako izen on aitortua izateagatik, Fundazioaren bulkada materialetan, dirutan edota ezagutzen arloan jasotzeko merezimenduak dituzten erakundeak eta elkarteak izatea.

Pertsona fisikoen kasuan, Patronatuak, ikertzaileen artetik izendatuko ditu bere onuradunak. Horretarako aldez aurretik deialdia egingo du eta onura horiek emateko arauak eta jardunbidea ezarriko ditu eta, baldintza horiek ezartzeko irizpideak, ikerkuntza-bikaintasunaren maila eta eskatzaileen gaitasuna edo ahalmena izango dira.

Fundazioak, interes orokorreko bere helburuen barnean, objektibotasun- eta inpartzialtasun-irizpideekin jokatu beharko du bere onuradunak hautatzerakoan, beti ere inolako bazterte-kasurik gertatu gabe.

#### 8. artikulua.- Publizitatea.

Fundazioaren jarduerak bere onuradun ahaleki eta interesatuek ezagutuak izan daitezten, Patronatuak behar adinako publizitatea egingo die bere helburuei eta jarduerari.

## II. IDAZPURUA PATRONATUA

### 1. KAPITULUA. OSAERA ETA ESKUMENAK.

#### 9. artikulua.- Patronatua.



Patronatua fundazioaren gobernu-, administrazio- eta ordezkaritza-organo gorena da eta bere kargupean izango ditu Fundazioaren sortze-helburuak betetzeko beharrezkoak diren Fundazioaren kudeaketarako zuzendaritza eta kontrolari dagozkion ahalmen guztiak. Zehazki, fundazioaren ondarea osatzen duten ondasun eta eskubideak administratuko ditu.

#### 10. artikulua.- Osaera eta iraupena.

Patronatua, gutxienez zazpi partaidek eta gehienera hamabost partaidek osatuko dute.

Patronatua honako hauek osatuta egongo da:

- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkuntza Sailburuak edota haren eskuduntzak hartzen dituen ordezkariak.
- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkuntza Sailburuordeak edota haren eskuduntzak hartzen dituen ordezkariak.
- Zientzia Politikarako Zuzendariak edota haren eskuduntzak hartzen dituen ordezkariak.
- Unibertsitateetarako Zuzendariak edota haren eskuduntzak hartzen dituen ordezkariak.
- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkuntzako Sailburuak izendatutako kideek. Kide horiek hamaikataraino izan daitezke eta beti ere Euskal Herriko autonomia



Erkidegoko ikerkuntzan ekarpenak egiten nabarmendu diren pertsona fisiko edo juridikoen artean hautatuak izango dira.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkuntza Sailburuak izendatutako patronuen karguetako iraupena, lau urtekoa izango da izendatzen dituzten unetik zenbatuta.

#### 11. artikulua: Hutsuneak betetzea.

Heriotza, ezgaitasun, kargu-uzte, heriotza-aitorpen, kanporatze edo bateracizintasun, agintaldi-amaiera, enkaitze edo gobernu-organoko edozein partaideren kargu-gabetzea edo ordezkapena eragin dezakeen beste edozein gertakarik sorrarazitako edozein hutsune ere, ezarritako ohiko hautaketa-jardunbidea jarraituta beteko da.

Patronatuko kideek, hartutako erabakiek balio izateko, obligazioa dute organo hori gutxienez ere Estatutu hauek beren 10. artikuluan zehazten duten gutxienezko kopuruarekin iraunarazteko.

Patronatuko kideak kargu-gabetzeko erabakia epaileak hartu ahal izango du beren karguak Legean eta Estatutu hauetako 21. artikuluan aurreikusitako arretaz ez betetzeagatik erantzukizun-ekintzaren bat beren aurka hastean.

Gobernu-organoko kideen ordezkatzeko, kargu-uzte eta kargu-gabetzeak Fundazioen Erregistroan inskribatuko dira.

#### 12. artikulua.- Dohaintasuna.

Patronatuko kideek doan beteko dituzte beren karguak. Alabaina, beren eginkizunak betetzeak sorraraz diezazkiekeen gastuak, behar bezala zuritu ondoren, ordainduak izan dakizkieke.

#### 13. artikulua.- Fundazioko Lehendakaria.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkuntza Sailburuak izango du Patronatuko Lehendakariaritzaren Lehendakariari dagokio, bere ekimenez edota gutxienez ere kideen herenak eskatuta, Patronatuaren bilera-deiak egitea, eztabaidak gidatzea eta erabakitakoak egikaritzea edo gauzatzea.

Patronatuko Lehendakariak izango du gobernu-organoren ordezkariaritzaren gorena eta, horretaz gainera, organo horretako partaide izateagatik edota Estatutu hauek berari aitortuta dagozkion berezko ahalmenez gainera, Fundazioa bere ekintza guztietan eta Patronatuko nahiz Fundazioko beste organo batzuen erabakien ondorioz egiten diren kontratuetan ordezkatzeko ere badagokio, hala nola, gatazka, espediente, administrazio-gai, gobernu-gai eta zuzenbide-gaietan nahiz zuzenbidez kanpokoetan sortzen diren kasuetan, helburu horiek betetzeko Prokuradore edo Abokatuen aldeko auzitarako ahal orokorrak emateko ahalmena ere izanik.

#### 14. artikulua.- Lehendakariordea.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkuntza Sailburuordea izango da Patronatuko Lehendakariordea. Lehendakariordeak Lehendakaria ordezkatu du azken honen



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

JUSTIZIA, LAN ETA  
GIZARTE SEGURANTZA SAILA  
Euskal Herriko Fundazioen Erregistroa

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,  
EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL  
Registro de Fundaciones del País Vasco

gertzeetan edo gaixotasun-kasuetan eta egoera horiek egiaztatzeko nahikoa izango da egoera horien agerpen hutsa. Lehendakaria edo Lehendakarioidea agertzen ez direnean, adinik handieneko kideak ordezkatuko ditu.

#### 15. artikulua.- Idazkaria.

Zientzia Politikako Zuzendariak beteko du Patronatuako Idazkari-kargua. Idazkariak bere kargupean izango du fundazioko administrazio-lanen zuzendaritza; agiriak zaindu behar ditu eta egiten diren bilera eta batzarretako aktak idatziko ditu eta onetsi eta Lehendakariak ontzat eman ondoren, Akta Liburuan idatzita jarri behar ditu.

#### 16. artikulua.- Diruzaina.

Patronatuak, egoki iruditzenb azaio, bere kideen artean edota kideetatik kanpo, Diruzain bat izendatu ahal izango du Patronatuak berak ematen dizkion zereginak burutzeko. Diruzainari eman dakizkiokeen eginkizunak hauek izango dira:

1. Fundazioaren fondoak bildu eta zaintzea.
2. Diru-sarreraren eta gastuen balantzea aurkeztu eta sinatzea.
3. Inbentario, Kontu, Aurrekontu eta Eguneroko eragiketen Liburuak egunera edukitzea.


#### 17. artikulua.- Fundazioaren zerbitzuan jardungo duen pertsonala.

Patronatuak, Lehendakariak proposatuta, Zuzendari bat ere izenda dezake. Zuzendariari dagozkio Fundazioaren helburuak bultzatu, sustatu eta garatzera bideratutako eginkizun guztiak egitea eta, aurkezteko eginkizun soilarekin, honako hauek ere badagozkio:

- a) Patronatuak onetsi eta erabakitako urteko jardueren eta helburu orokorren egitaraua betetzeko Fundazioaren jardunen helburu zehatzak ezartzea.
- b) Fundazioaren jardueren urteko egitaraua lantzea gero Patronatuak onetsi dezan.
- c) Fundazioaren ikerkuntza-jarduerak Patronatuak dituen irizpideen arabera antolatzea.
- d) Patronatuari Fundazioaren jardueren eta ikerkuntza-egitarauen garapenaz berri ematea eta berak agindutako edo ordezkarietan lagatako eginkizunak burutzea.
- e) Fundazioko zientzia-arloko eta teknika-arloko pertsonala kontratatuzko hautaketa-jardunbideak zuzentzea eta beste erakunde batzuetako zientzia-arloko eta teknika-arloko pertsonala Erakundean sartzeko onartzea.
- f) Fundazioaren zerbitzuan jardungo duen zientzia-arloko eta teknika-arloko pertsonalaren prestakuntza sustatzea.
- g) Patronatuak berari espresuki agindu edota esleitutako edozein eginkizun betetzea, Estatutu hauetan aurreikusitako moduan.

Era berean, Patronatuak, fundazioaren izenean kudeaketa-lanak edota beste jarduera batzuek egiteko agindua ere, gobernu-organoko kideren bati edota hirugarren pertsonari ere eman diezaike, beti ere eginkizun horiek eskatzen duten ordainsari egokiekin.

#### 18. artikulua.- Fundazioaren zerbitzuan jardungo duen pertsonalaren erregimena.



P 8125188 C



Zuzendaria, Goi-mailako pertsonalaren erregimen bereziaren arabera kontratatua izango da. Fundazioaren zerbitzuan lanean jardungo duen gainerako pertsonala, Laneko Zuzenbide-araudiaren arabera kontratatutako berariarazko pertsonala izango da, beti ere, berdintasun-, meritu-, eta gaitasun-printzipioak errespetatuz.

Agentziako pertsonal guztia, funtzionamendu-arloan Zuzendariaren mende egongo da.

### 19. artikulua.- Patronatuaren eskuduntzak.

Patronatuaren eskuduntzak, Fundazioaren gobernuari dagokion esparru orotara hedatzen da eta, batez ere, ondorengo artikuluetara:

- 1- Fundazioak bere helburuak hobeto betetzeko duen norabidea adierazi.
- 2- Baliabide ekonomiko eta finantzario guztien administrazioa, beren jatorria edozein izanik ere.
- 3- Aurreko ekitaldiko Inbentarioa, Egoera-balantzea, E-mailtza-kontua eta Orotidazkia edo Memoria onetsi eta baita denboraldi bereko diru-sarreraren eta gastuen Aurrekontu-likidazioa ere.
- 4- Hurrengo ekitaldirako diru-sarreraren eta gastuen Aurrekontua onetsi eta baita bere Orotidazki edo Memoria ere.
- 5- Komenigarriak den barne-araudia onetsi.
- 6- Ordezko Batzordeak sortu, beren kideak izendatu eta dituzten ahalenak zehaztu eta ahalmen orokorrak edo bereziak eman ondorengo artikuluean xedatutakoaren arabera.
- 7- Zuzendaritza-, egikaritze- eta aholkularitza-karguetarako kideak izendatu eta baita beharrezkoa den gainerako pertsonal teknikoa, administraria, lan-hitzarmenekoak eta mendekoa ere, Estatutu hauetako 17. artikuluean aurreikusitakoaren arabera.
- 8- Ekintza eta kontratu mota oro formaldu eta onetsi, bai izaera zibilekoak, merkataritza-arlokoak, lanekoak, administrazioakoak edota beste edozein motatakoak, beti ere, fundazioaren helburuek beteak izateko eskatzen dituzten ekimenik onenak burutzearen.
- 9- Bidezkoak diren proposamenak eskuduntza duten organoei gora helarazi, goragoko erabakiren bat eskatzen duten gailentzat.
- 10- Enpresa, erakunde, organismo edo partikularren partaidetza sustatu eta eragin elkarlan teknikoko egitarauak eta pertsonal kualifikatua prestatzekoak garatuz, fondoek ekarpenen edota elkarlan-hitzarmenen bidez gauzatzeko.
- 11- Herentzia, legatu edo dohaintzak onartu ala errefusatu Fundazioarentzat komenigarriak irizten diren heinean, beti ere Babesleei jakinarazita noski.
- 12- Beharrezkoa balitz, Fundazioaren sortze-estatutuak aldatu, sortzailearen borondatea hobeto betetzeko.

### 20. artikulua.- Ordezkaritzak, Ahalak eta Ordezko Batzordeak.

Patronatuak bere kideetako baten edo hainbaten gain utz ditzake bere ahalmenetako batzuk edo denak baina beti ere, kontuak eta aurrekontuak onestea eta kudeaketa arrunta gainditzen duten ekintzak edo Babesleen baimena behar dutenak kudeatzea salbu.

Aurreko lerrokadan adierazitako mugekin, Patronatuak Ordezko Batzordeak eta Batzorde Egikaritzzaileak eratu ahal izango ditu, kasu bakoitzean zehazten diren



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

JUSTIZIA, LAN ETA  
GIZARTE SEGURANTZA SAILA  
Euskal Herriko Fundazioen Erregistroa  
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,  
EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL  
Registro de Fundaciones del País Vasco

Patronatuarekin eta ahal orokorrak edo bereziak izendatu ahal izango ditu, eginkizun komun edo elkartasunezkoekin.

Ordezkaritza eta ahal orokorrak eta beren desegiteak, auzitarako direnak salbu, Fundazioen Erregistroan inskribatu behar dira.

## 21. artikulua.- Patronatuaren betebeharrak.

Fundazioaren Patronatuko kideek betebehar hauek dituzte:

- a) Fundazioaren sortze-helburuak zorrotz betetzea eta betearaztea, Legean eta Fundazioaren Estatutuetan xedatuen arabera.
- b) Fundazioaren ondarea eratzen duten ondasun eta eskubideak administratu eta beren ekoizkortasuna bete-betean mantendu, kudeatzaile onaren ekonomia eta finantzetako irizpideen arabera.
- c) Kargua legezko ordezkari baten zuhurtziaz zerbitzatu.

## 22. artikulua.- Autokontratazioaren debekua.

Patronatuko kideek ez dute fundazioarekin kontraturik egiterik izango, ez beren izenean ez eta hirugarrenen izenean ere, Babeslearen baimena dutenean salbu.


## 23. artikulua.- Erantzukizuna.

- 1- Patronatuko kideak erantzule edo arduradun dira fundazioaren aurrean Legeek zehazten duten neurrian.
- 2- Erantzukizunetatik salbuetsita geldituko dira gertaera eragin duen erabakiaren aurka bozkatuak direnak edota erabakia hartzean esku hartu ez zutenak, baina ez dira salbuetsita geldituko haren berri izan eta beren desadostasuna adierazi gabe geldituak.
- 3- Gobernu-organoen ardura auzitegi arruntaren aurrean eskatzeko dagokion ekintza-jarduna eta eman daitekeen epai irmoa Fundazioen Erregistroan inskribatuko dira.
- 4- Babesleak, bere ekimenez edota zilegizko interesa daukanaren arazoizko eskaera bidez, ardura-ekintza hori egikaritu ahal izango du. Era berean, hori bera sortzaileak berak ere egikaritu ahal izango du Patronatuko kideen jarduna sortze-helburuen aurkakoa edo haiek kaltetzekoa denean.


## 2. KAPITULUA. PATRONATUAREN FUNTZIONAMENDU-ERREGIMENA.

### 24. artikulua.- Barne-funtzionamendua.

Patronatuak, gutxienez ere, urtean bi bilera egin behar ditu. -Urte bakoitzeko lehenengo sei hilabeteen barruan, derrigorrez bilduko da Patronatua aurreko ekitaldiko Aurrekontuaren likidazioa, Egoera-balantzea, Emaitza-kontua, Inbentarioa eta Jardueren Oroitidazkia edo Memoria Estatutu hauetako 32. artikuluan aurreikusitako moduan onesteko. Era berean, laugarren hiruhilekoan, aldez aurretik egin beharreko deialdia eginda, Patronatuak hurrengo ekitaldirako Aurrekontua onetsiko du, abenduaren 31 baino lehen Babesleari igortzeko.



P 8125187 C



Patronatuaren deialdiak idatziz egin behar dira eta deialdiko gai-zerrenda Lehendakariak onartua izan behar du baina gobernu-organoko kideen iradokizunak kontuan hartua egindakoa. Gutxienez ere bileraren eguna baino 10 egun lehenago bidaliko da, premiazotasun-kasuetan salbu, kasu horietan 3 egunetz aurretiko epearekin bidali ahal izango baitira.

Patronatuaren barne-funtzionamendua, Estatutu hauetan aurrekusi gabeko gai guztietan, horretarako Patronatuak berak emango dituen arauen bidez eragunduko da.

#### 25. artikulua.- Erabakiak hartzea.

Patronatua baliozko moduan eratuta geldituko da lehenengo deialdian, pertsonalki edota ordezkaritza bidez, bere kideen erdiak eta bat biltzen direnean.

Aurreko leherkadetan adierazitako quorumik bilduko ez balitz, Patronatua ordubeste geroago bilduko da eta, bigarren deialdi horretan, nahikoa izango da gutxienez ere hiru kide biltzea, baldin eta Lehendakari edo Lehendakariorde titularra bertan bada.

Aurreko leherkadetan adierazitakoarekin zerikusirik izan gabe, Patronatua biltzeko deitutzat eta balioz eratutzat joko da, bere kide guztiak biltzen direnean eta aho batez bilera egitea onartzen dutenean.

Erabakiak botoen gehiengoz hartuko dira, ondorengo kasuetakoren bat denean salbu:

- 1- Fundazioaren aldaketa, elkartzea edo desagertzea erabaki behar denean. Kasu horietan, erabakiak balio izateko, kideen bi herenen aldeko botoa behar da.
- 2- Estatutu hauetan bozketa-quorum desberdina ezarrita duen beste edozein gai erabakitzeko.

Lehendakariaren botoak hautsiko ditu bozketetan gerta daitezkeen berdinketak.

Patronatuak egiten duen bilera bakoitzaren akta jasoko du Idazkariak eta bilera egin den lekua eta eguna zehazteaz gainera, bildutako en izen-deiturak, eztabaidatu diren gaiak eta onartutako erabakiak edukirik ere idatziko ditu.

### III. IDAZPURUA ONDAREA ETA EKONOMIA-ERREGIMENA

#### I. KAPITULUA. OSAERA, ADMINISTRAZIOA ETA ZAINZA.

#### 26. artikulua.- Fundazioaren ondarea.

Fundazioaren ondarea, ekonomia-balioa izan dezaketean era guztietako ondasunez eta eskubidez eratua izan daiteke, Fundazioa, bere taxuketa- eta administrazio-ekintzetan, aplikagarri zaizkion arauak ditutako zaie eta bere etekinak edo errentak, berariazkoak dituen helburuetarako, izendatu eta erabiliko ditu, guztia ere Estatutu hauetan xedatutakoaren arabera noski.

#### 27. artikulua.- Helegiteak.



ELISKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

JUSTIZIA, LAN ETA  
GIZARTE SEGURANTZA SAILA  
Euskal Herriko Fundazioen Erregistroa

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,  
EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL  
Registro de Fundaciones del País Vasco

28. artikulua.- Ondare-aldaketak eta ondarearen ondarea hauek osatuko dute:

- a) Sortze-eskrituran jasotako hasierako zuzkidura.
- b) Partaide sortzaileen ohiko eta ez-ohiko kuotak eta ekarpenak eta Patronatuko kideek borondatez ordaintzeko onartutako ohiko eta ez-ohiko kuotak eta ekarpenak.
- c) Zuzenbidean onartutako moduen bitartez etorkizunean eskuratutako beste edozein ondasun edo eskubide, batez ere, legatu, dohaintza, ekarpen eta subentzio moduan pertsonak, organismoak eta erakundeak emandakoak. Dohaintza, legatu eta herentzien onarpena, Babesleari jakinarazi behar zaió.
- d) Egun indarrean den legeriaren arabera, ondareak emandako fruituak edo errentak, ekoizpenak edo irabaziak eta Fundazioaren jarduerak emandakoak nahiz prestatzen dituen zerbitzuen ordainketak sortuak.
- e) Legezko markoaren aplikazioaren barruan izan dezakeen beste edozein baliabideak sortuak

#### 28. artikulua.- Ondare-aldaketak.

Fundazioaren Patronatuak, une oro eta behar duen bezainbatetan, ekonomia-kojunturak aholkatzen duenaren arabera, egokiak iruditzen zaizkion fundazioko kapitalaren aldaketak, eraldaketak edo bihurketak egin ahal izango ditu, beti ere, bere balio izendatua gorde arren, kapital horren benetako balioa edo eros-ahalmena murriztua gerta ez dadin.


#### 29. artikulua.- Fundazioaren sortze-ondarearen zaintza.

Fundazioaren sortze-ondarea zaintzeko eta gordetzeko, ondorengo arauak beteko dira:


- a) Sortze-ondarea osatzen duten ondasun eta eskubideak fundazioaren izenean egon beharko dute eta bere Inbentarioan azaldu, kasua bada, dagozkien Erregistroetan inskribatuz.
- b) Ondasun higiezinak eta/edo errege-eskubideak, Fundazioaren izenean inskribatuko dira Jabetza Erregistroan. Inskriba daitezkeen gainerako ondasunak, dagozkien erregistroetan inskribatuko dira.
- c) Fundazio titular duten baloreak eta diruak, jabetza-tituluak, gordailu-gordekinak, jabariak, edukitzak, erabilpenak, gozamenak edota beste edozein eskubide ere, Patronatuak erabakitako erakundean gordeko dira Fundazioaren izenean.
- d) Gainerako ondasunak patronatuak zehazten duen moduan zainduak izango dira. Ondasun edo eskubide horiek guztiak Inbentario Liburuan zehaztuko dira eta Patronatuko Idazkaritzaren kargupean egongo da. Bertan, Idazkariaren kontrolpean, identifikatzeko eta deskribatzeko beharrezkoak diren inguruabar guztiak jasoko dira.

#### 2. KAPITULUA. <EKONOMIA-ERREGIMENA.

#### 30. artikulua.- Ekitaldi ekonomikoa.



P 8125186 C



Ekitaldi ekonomikoa urterokoa izango da eta urte naturalarekin. Fundazioak, ekitaldi ekonomiko bakoitzerako, aurrekontu arrunta prestatu bertan jasoko ditu era orekatuan aurreikusitako diru-sarrerak eta gastuak.

Aurrekontu hori azalpnak emateko Oroitidazki edo Memoria batekin batera, Babesleari aurkeztuko zaio onartu behar den urteko azken hiruhilekoan.

### 31. artikulua.- Ekonomia eta kontabilitateko betebeharrak.

Patronatuak, inbentarioa, egoera-balantzea eta emaitza-kontua landuko ditu eta horietan ongi islatuko du fundazioak duen ondare-egoera, ekonomia-egoera eta finantza-egoera. Era berean, urtean zehar burututako ekintzen oroitidazkia edo memoria eta ondarearen ekonomia-arloko kudeaketa ere aurkeztuko ditu, hain zuzen ere, sortze-helburuak eta legezko betebeharrak bete direla jakin eta egiaztatzeko adinakoak. Aurreko urteko diru-sarreraren eta gastuen aurrekontuaren likidazioa ere egingo du, arlo horretan Lege-xedapenek agindutakoa betez.

### 32. artikulua.- Kontu-ematea.

Urtearen lehen sei hilekoaren barruan, Patronatuak egiaztatu eta zuritu egin beharko du Babeslearen aurrean Fundazioen Legeko 27. artikuluan aurreikusitako moduan, bere kudeaketa Fundazioaren sortze-helburuekiko egokia izan dela.

Fundazioak, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia Kontrolerako Bulegoak egindako auditoria bidez, finantza-arloko kontrola jasango du.

### 3. KAPITULUA. BALIABIDEAK FUNDAZIOAREN SORTZE-HELBURUEN ARABERA ERABILTZeko ARAUAK.

### 33. artikulua.- Diru-sarreraren eta administrazio-gastuen zertarakoa.

- 1- Fundazioaren ondasunak eta errentak, bere sortze-helburuak era zuzenean eta berehala burutzeko esleituak izan behar dutela ulertuko da.
- 2- Fundazioak aldizka-aldizka programatuko ditu bere helburua betetzeko berariazkoak diren jarduerak eta, horretarako, urtero egingo da prestazioen plangintza eta horiek gauzatzeko moduak eta esleipenak erabakiko dira.
- 3- Lortu ondorengo hiru urteko epearen barruan, helburu horiek betetzera bideratuko dira gutxienez ere errenta garbiena % 70 eta edozein kontzepturengatik lortutako beste diru-sarrera batzuk, kasuan kasu berei dagozkien zerga-kopuruak kitatu ondoren.

Ondare-zuzkidura kontzeptuan egindako ekarpenak, bai beren eraketa-unean eta baita geroago ere, betebehar hori betetzetik salbuesita gelditzen dira.

Gainerako diru-sarrerak, % 20 baino handiagoak izango ez diren administrazio-gastuak kitatu ondoren, fundazioaren sortze-ondarea handitzeko erabili behar dira, fundazioak arazoituta eskatu eta Babesleak espresuki emandako baimena denean salbu, egun indarrean diren legezko xedapen eta arauetan aurreikusitakoaren arabera.

## IV. IDAZPURUA ALDAKETA, ELKARTZEA ETA DESEGITEA



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

JUSTIZIA, LAN ETA  
GIZARTE SEGURANTZA SAILA  
Euskal Herriko Fundazioen Erregistroa  
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,  
EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL  
Registro de Fundaciones del País Vasco

**32. artikulua.- Aldaketa.**

Fundazioaren Patronatuak eragin dezake Estatu hauen aldaketa, beti ere horri fundazioaren sortze-helburuak hobeto betetzeko komenigarria dela irizten dionean. Estatutuak aldatzeko erabakia, gutxienez ere Patronatua osatzen duten kideen 2/3en aldeko botoekin erabaki beharko da.

### **35. artikulua.- Elkartzea.**

Patronatuak halaber, beste erakunderen batekin elkartzea edo bat egitea erabaki lezake, beti ere sortze-helburua modu egokian jasota gelditzen den heinean. Erabakia horretarako arrazoiak izanda onartuko da gutxienez ere bere kideen 2/3en aldeko botoekin.

### **36. artikulua.- Desegitea.**

Fundazioa, kasu hauetan desegingo da:

- 1- Kode Zibileko 39. artikuluan edota beste Lege batzuetan aurreikusitako arrazoietakoren bat dagoenean.
- 2- Elkartze edo bat egite jardunbide baten ondorioz hala gertatzen denean.
- 3- Auzitegiko epai irmo bidez desegiten denean.

### **37. artikulua.- Desegite-jardunbidea.**


Aurreko artikuluaaren 1. eta 2. ataletan aurreikusitako kasuetan, fundazioa desegiteak patronatuaren erabakia eta Babeslearen berrespena eskatuko ditu.

Desegite-erabakia, edozein kasutan ere, arrazoitua izan behar du eta ondare-egoeraren eta likidazio-egitarauaren adierazpena egin behar da. Gobernu-organoaren erabakirik ez balego edota Babesleak berretsiko ez balu, Fundazioa desegiteko arrazoitutako auzitegiko ebazpena beharko da eta, kasua bada, Babesleak edota Fundazioaren organoak eska dezake, Desegite-erabakia edota, kasua bada, arrazoitutako auzitegiko ebazpena, Fundazioen Erregistroan inskribatuko da.

### **38. artikulua.- Likidazioa.**

Fundazioaren likidaziotik ateratzen diren ondasunak eta eskubideak, sortze-eskrituran adierazitako sortzailearen borondatearen arabera, Patronatuak, izpiritu horrekin, erabakiko duen interes orokorreko helburuetarako izango dira. Patronatuak hala egingo ez balu, Babesleak, desegitera doan fundazioak dituen helburuen antzekoak dituzten beste Fundazio edo Erakunde batzuentzat izendatuko ditu ondasune ta eskubide horiek eta, lehentasunez, beren helbidea udalerrri berean duenen baten alde eta, halakorik ezean, Lurralde Historiko berean duenen baten alde.

## **V. IDAZPURUA FUNDAZIOEN BABESLEAK ETA ERREGISTROAK**



P 8125185 C

**39. artikulua.- Babeslea**

Fundazio hau, Babeslearen babes, aholkularitza eta kontrolpean gelditzen da, egun indarrean diren Legeetan aurreikusitako moduan.

**40. artikulua.- Fundazioen Erregistroez**

Fundazio honen eraketa eta legez hala behar duten bere zuzenbidezko ekintza edo negozio guztiena ere, Legearen arabera eskuduntza duen Fundazioen Erregistroan inskribatuko dira.

